

**Itsasondo, Arama eta Altzaga udalerriek osatzen duten udal elkarteko
Idazkaritza lanpostua bitarteko funtzionarioak betetzeko hautaketa-
prozesua**

(2025/01/27ko GAO, 16. zk.):

**Oposizio-faseko ariketaren behin betiko emaitzak eta merezimenduak
egiaztatzeko epea irekitzea**

1.- Oposizio-faseko ariketaren behin betiko emaitzak.

Xede horrekin emandako epean erreklamaziorik ez denez aurkeztu, Epaimahaiak, 2025eko apirilaren 14an, goian aipatu hautaketa-prozesuaren oposizio-faseko ariketa gainditu duten hautagaien behin betiko zerrenda onetsi du (*):

Lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran:

Hurrenkera	Izen-abizenak	ONDO	GAIZKI	ZURIAN	PUNTUAK
1	Ametz Etxezarreta Balerdi	49	12	19	56,25
2	Irati Jauregi Unanue	45	35	0	41,66
3	Nerea Zabaleta Erdocia	36	13	31	39,58
4	Aritz Insausti Zeberio	35	22	23	34,58

(*) Hautaketa-prozesua arautzeko zazpigarren oinarriaren 2.5 atalari jarraikiz.

2.- Lehiaketa fasea: merezimenduak egiaztatzeko epea irekitzea.

Hautaketa-prozesua arautzeko zazpigarren oinarriaren 3. zenbakiari jarraikiz, aurreko zerrendan jasotako izangaiek 3 egun balioduneko epea izango dute parte hartzeko eskaeran alegatutako merezimenduak egiaztatzeko.

Epe hori izango da: 2025eko apirilaren 29tik maiatzaren 2ra artekoa.

Epaimahaiko idazkaria

Sin.: Begoña Gorritxategi Osa